

## PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Ideiak identifikatzeko pare bat baliabide erabili ditugu:

-Alde batetik gai bati buruzko ahalik eta ideia gehien sakondu ditugu, gure kasuan, gizarte segurantzarako ahalik eta ideia gehien bildu ditugu, hiritarrak seguruago bizitzeko.

-Bestetik, kideok ditugun ahalmenak kontuan hartu ditugu ideia honetarako: zaletasuna izan da horietako bat, gizartea babestearen beharra. Hori gutxi balitz, teknologian ere inspiratu egin gara, teknologia aurreratuenak erabiliz.

Orokorrean, arazo sozialei aurre egiteko sortua da. Beste herrialdeetako antzeko proiektuekin ez dugu antzekotasunik nahi, beraz gure produktua ahalik eta bereizgarriena izatea da. Ez dugu beldurrik izan gure ideia garatzerako orduan.



Taldeko lau kideen artean ideia-zaparradaren teknika erabiliz bi ideia nagusi aukeratu genituen. Bi ideia horien alderdi positibo eta negatiboak alderatuz proiektu hau egitea aukeratu genuen.

### Gure ideiak:

Hiritarrek semaforoa gorrian pasatzen badute eta aldi berean ibilgailu bat habiadura handian pasatzen ari bada zebrabidetik oso gertu, semaforoak gehituta duen abisu edo alarma bat da, egungo semaforoei punta-puntako teknologia ezartzen diona. Gaur egun hiritarrek jasaten duten auto istripu kopurua saihesteko prest egina egingo da, haiek segurtasun handiagoa izateko, egun hauetan jende askok semaforoa gorritz zeharkatzeko ohitura hartu baitu. Egoera desberdinetara egokitzeko gai diren hainbat modelo inplementatuko ditugu:

1. Soinuzko abisua: oinezkoentzat entzungarria den alarma bat aktibatuko da zebrabidea pasa en dezan. Zarata moderatua dagoen hirietan da baliagarria, ez ordea kale zaratsuetan, ez baitzen ondo entzungo.
2. Argizko abisua: bai oinezkoak eta bai gidariak ikus dezaken argi gorri batzuk jarriko dira zebrabidean. Leku ilunetan kokatu daiteke edota soinuzko abisua jartzea posible ez denean.
3. Abisu konbinatua: soinuzko eta argizko abisua biak batera jartzea da, jende asko pasatzen den zebrabideetan jarri daitekeena segurtasuna oraindik gehiago handitzeko.